

Bizitza bat maileguan

AINHOA URIEN

E
l
k
a
r
r
I
r
a
k
u
r
r
i
z



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

AINHOA URIEN TELLETXE

bizitza bat maileguan

“Bertzeari eskainitako denbora zurea liteke
baldin eta eskaintza horretan zu ere bazaude...”

Rakel Pardo Perez

Egurats zabaletako izendaezinak

E
l
k
a
r
r
I r a k u r r i z

Hiltzeko egun ona –halakorik balego– ez da igande arratsalde bat. Baina literatura guztiei desafio eginez herenegun hil zen. Jai egunetan munduaren martxa mantsotu egiten da. Langile gehienak deskantsuan dauden egunean lan egitea tokatu zaionari ahalik eta trabarik gutxien egin behar zaiola uste zuen Bk. Farmaziara joan beharra bazuen hurrengo egunera arte itxaroten saiatzen zen, larrialdietara oso larri zegoenetan bakarrik zihoan. Baina, azkenean, bat bere kontraesanekin bizi da eta, noski, haiek bizkarrean hartuta hiltzen da. Halaxe utzi zion bizitzeari Bk, zerua zaparradaka lehertzen zen igande arratsalde batean, eta ehorztetxeko langile koitaduari lana egin beharra eragin zion.

Igande arratsalde euritsuak irakurtzeko onenak direla dio literatura erromantikoak. Literatura antikapitalistak dio igandeei darien tristura soldatapeko astelehenari dagokiola. Literatura burgesak dio igande arratsaldeetan hirietako zabalgunek ederrak xarma diskretu batek hartzen dituela. Literatura horri ahaztu egiten zaio periferiaren kriminalizazioak eta bazterkeriak bilakatzen dutela erdigunea bakezalekeria faltsuaren irudi. Best sellerren sukarrak jotako literaturak dio igande arratsaldeetan familia politak elkartu egiten direla. Aitek semeekin beisbolean jokatzeko orduan, eta alabek afaritarako indioilarra prestatzen ari diren amei euren institutuko sekretutxoak kontatzen dizkiete: nork eramango dituen dantzaldira, unibertsitate berdinerara joango dela mutil guapo bat, familia ez duela inoiz ahaztuko. Asko saldu gura duenak badaki zer idatzi. Literatura alternatiboak dio igande arratsaldeetan bikotearekin paseatzen ez duten pertsonak iraultza bikoitza egiten ari direla, arau bi arrats bakarrean desafiitzen dituztela eta jende hori dela benetako esperantza. Hausnarketara emanda bizi den literaturak igande arratsaldean nolakotasuna ertz guztietatik aztertu du. Gogoeta mistikoetara bideratutakoak, gainera, igande arratsaldeetan euria egitea gure gain eta gugan eta gurekin eta gure aireetan dauden izaki, izpiritu, alien batzuen apeta dela sinestarazten du. Gero eta sakonago joanda aurkitzen ditu batek horoskopokoak, mercurio retrogrado eta ilargiaren erakarmen indarrak.

Antza, inork ez dio astearte buruzuri bateko arratsaldeari erreparatzen. Orduan atera ninduten ni apaletik. Denbora neraman han hautsa hartzen. Ni bezalako liburuei apenas luzatzen die inork eskurik. Noizean behin egilea bera etortzen da, atera egiten nau, jertsearen maukarekin hautsa kentzen dit eta orriak astintzen dizkit. Nasaitua hartzen dut halakoetan, ze ni liburu mehe bat naiz eta alboan ditudan liburukoteek estututa pasatzen dut denbora. Orriak orriei itsasten zaizkie eta inprentako tinta difuminatzen da, eta letrak berriro nahasten dira eta berez sortzen da poesia berri bat. Inork gutxik eskuartean erabiltzera kondenatuta zegoen nire bizitza orain naizen bezalako liburu bat izan aurretik, orri solteetan idatzitako amets bat nintzenean. Norbait, baina, tematu egin zen.

- Idatzi egingo dut nik, Patti Smithek bezala, norbait hobea izateko, ni neu naizena baino zerbait hobea idatzita uzteko - bere burua konbentzitzen aritzen zen nire idazlea paper pila zikintzen zuen bitartean.

Erraz kontsolatzen dira liburuak idazten dituztenak. Beti dute arrazoiren bat alde, mundu guztiak irakurriko duena idazten dutenean zein aurrez dakitenean inork ez duela irakurriko. Azken aukera horretara gehiagotan makurtzen diren idazleek garapen pertsonalaren karta ateratzen dute, baina zaila izaten da hori egoaren hedapenarekin ez nahastea. Total, azkenean ego zauritu batekin geratzen dira eta errua egotzen diote gizarteari, irakurzaletasuna sustatzen ez duen hezkuntza sistemari eta dituzten lagun guztiei. Ze bai, gu idazten gaituen jendeak baditu lagunak, baina horrek, beraien zoritxar eta amorrurako, ez du esan gura irakurleak dituztenik. Noski, idazten duenak argitaratu egin nahi du, nahiz eta esango duen sakon-sakonean berarentzat idazten duela.

- Zu itsasoan galdutako irla batera joan eta han bakarrik biziko bazina, beste inorekin kontakturik gabe, idatziko zenuke?

Eta ez da jakiten galderak ala erantzunak ematen dien beldur handiagoa. Badago argitaratzeari muzin egiten dion idazlerik, baina gutxiengoan artean gutxiengoa izaten dira, ia inor ez. Gainera, frakasoia hautu propioz mozorrazteko arrisku handia du gutxiengoetan gutxiengoa den jendearen diskurtsoak. Ze horiek ni idatzi nauenak baino zaurituago dute egoa, are autoestima.

- Niri idaztea gustatzen zait eta badut koaderno bat eta idazten dut egunero - esaten dute norbaiten aurrean gehiegizko sentsibilitatea agertu nahi dutenetan. Idazteak ez zaitu automatikoki sentsible bihurtzen, emakume izateak feminista bihurtzen ez zaituen bezala. Ala hein batean bai? Halako sinplekeriz beteta dago mundua, jendeak liburu bat irakurri baino eslogan bat tatuatzea gurago du.

- Ah! Eta argitaratzera animatuko zara?

- Ez... Zera... niri lotsa ematen dit, nik niretzako idazten dut.

Esaldia erabat bukatzea ahazten zaie beti. Inork argitaratu nahi ez izateari beldurra diote. Gainera, liburu bat argitaratzea jazoera handizat hartzen da eta, zera esango dizuet nik, ba hainbesterako ere ez dela. Begira niri, liburutegi publiko bateko apal batean gau eta egun egotera kondenatuta, zer eta norbaitek bizitzan egin behar ei diren hiru gauzetako bat egin duelako: liburu bat idatzi. Egoaren apetak eukalipto bat bota du. Tira, igual eukaliptoen kontra borrokatzeko modu bat da Euskal Herrian landatuta dauden eukalipto adina liburu inprimatzea. Eukaliptoak bukatzean, kitto liburuak. Azkenean, arrazoi izango dute erromantizatzen gaituztenek: bai, liburuok salbatuko dugu planeta.

Astearte arratsalde batez atera nau apaletik begiak malkoz gainezka dituen andre batek. "Bizitza hiltzear diren momentuz osatuta dago" dio nire kontraportadako esaldiak. Arreta piztu nahi duen liburu batek bilgarri azertatua izan behar du: izenburu adierazkor eta, aldi berean, misteriotsu bat (*Irautearen irauldea*, zergatik ez?), irudi eder bat (artelan abstraktu bat eta itzalen jolas bat, esaterako) eta kontraportadako testuko hitzek liburu barrukoek baino hobeto aukeratuak izan behar dute.

Esku ezezagun batzuek heldu naute behingoz. Urduri nago baina neure itxurarik onena ematen ari naiz, atzera ere ez nazan apalean utzi. Beste inoiz baino askoz gehiago irauten ari naiz eskuotan. Igual nirekin bizi direnek izaten dituzten abentura horietako bat izatear naiz.

- Azkenengoz egon naizen etxeak labanda usaina izan du. Etxe argia, norbaitek musika etengabe jarrita egoteko ardura hartzen zuen. Azkenengotik desberdina izan da oso. Etxe txiki ilun bat zen, halabeharrez jende asko bizi zena eta bata bestearen musikak nahasten ziren airean. Janari usain ezin goxoagoa zegoen beti. Ez zen labandadun etxea bezain garbia, aratza, purua. Baina bizitza zeukan, bizitza uneoro - halako kontuekin aritzen dira beti askotan mailegatzen dituzten liburuak, gauetan argiak itzali eta liburutegian inor gelditzen ez denetan.

Irrika ezin dut disimulatu. Orriak pasa eta pasa ari da eta nik ez dakit gai izango naizen bilatzen ari den hori emateko. "Hauxe!" esan du halako batean, eta berrogeita zazpigarren orrialdean atzamarra sartuta bildu nau esku barrenean. Banarama. Banarama eta ezin dut sinetsi. Bertigoa eta antsietatea nahasten ari zaizkit.

- Gure eremua aldatu guran gabiltza beti, baina konfort gunetik ateratzear gaudenean atzera geure kabiara itzultzeko bulkada batek hartzen gaitu - ezin diot azkarregi pentsatzeari eutsi. Beldurrak dena jaten du, hainbestetan amestu duzuna bera ere bai.

Antsietate atake batek jo nau apal altuen artetik pasatzen ari den andre honek eskuetatik askatzen ez nauelako.

- Ganoraz funtzionatzen duzu? - larri galdetu diot hona sartu orduko itsatsi zidaten barra-kodeari. Jakina da gauzak okerrago eta azkarrago zahartzen direla erabili ezean, eta nik badakit kode horrek ez duela sekula lanik egin.

Eskuz aldatu naute eta lehenengo aldiz hona sartu ninduten atzamar berberak bildu naute. Barra-kodearen irakurgailutik pasa nau liburuzainak. Pi lasaigarri bat entzun dut; funtzionatzen du.

- Liburutegiko txartela emango didazu, mesedez? - galdegin dio nire erreskate plana egin duen emakumeari.

- E, bai, barkatu. Ez dakit non daukadan. Itxoin, agian motxilan - desesperatuki bila hasi da begietako uholdeari eusten dion bitartean.

Haren larritasunari igarrita liburuzainak esan dio lasai egoteko, ez duela inporta, pasako diola txartel generikoarekin, eta hogeita bat egun baino lehen itzultzeko. Eta kitto.

- Bai, eskerrik asko. Bihar arratsalderako baino ez dut behar.

Ummm. Beraz, gurari batek baino behar batek aterarazi nau hemendik. Gauzak gertatzen direnean ere ez dira beti nahi bezala gertatzen. Nik desiratua izan nahi nuen, norbaitek ni begiz jotzea eta neuregana etortzea besterik ez balego legez. Eta ez, kasu honetan bezala, asko hoberik ez dagoelako neu aukeratzea, presaren eta inprobisazioaren maniobra baten ondorio izatea. Neure onena eman beharra dut orain premia izan dena desira bilakatzeko.

Zerua uholdeka ari da kanpoan. Liburutegiko atetik atera baino lehen jertsearen kremlera ireki eta barruan babestu nau. Izerditako beltzaren kaputxarekin estali du burua, erresistentzia gorputzera itsatsi eta polizien aurka liburu batekin oldartzen den heroia. Baina negarra gastatzear duen andre honek ez dauka inoren aurka egiteko indarrik. Nahikoa du bere buruari eusten. Bai, domeka ez den egunetan ere badaki euria egiten, eta hala gertatzen denean badirudi ez dela erromantikoa, putada bat dela bere soiltasun guztian. Korrika abiatu da andrea plazan gora, baina laster mantsotu du pausoa. Lurra bustita dagoenean arineketan ibiltzeak askoz gehiago bustitzen ditu hankak. Begiak erdi itxita daramatza euri-tantak betazaletan lehertu daitezten. Masailek jada ez dakite zerk bustitzen dituen, anpulu berri batzuek ala goitik behera datorren urak. Goxo noa ni sabelaren eta izerditakoaren artean. Bat eroso eta seguru denean errazagoa da bere onena ematea.

Etxe atari bat gurutzatu, eta giltzak sarrerako altzariaren gainera jaurti ditu. Izerditakoa erantzi eta eskegita utzi du, berez lehortu dadin. Orduan atera nau ni, txita bat kaskatu berri duen arrautzatik nola, datorkidan munduaren aurrean inozente. Giltzen ondoan utzi nau. Patchouli usaina da etxean, argi mehe bat sortzen dute sakabanatutako lanparatxoek. Mantsoa eta isila da giroa, kristaletan lehertzen dira euri-tantak eta ateratzen duten hotsa bakana da. Nire inguruan bizi diren liburuek esaten dute etxe bakoitzera joaterakoan zentzumen guztiak adi izan behar direla. Sentsorialki zoli ibili eta gorde dena zure

baitan. Ez omen daude etxe bi berdinak, ezta ere antzekoak, eta guk ez dakigu berriro noiz joan ahalko dugun beste etxe batera. Ni bezalako euskarazko poesia liburu batek are gutxiago. Zerekin konparaturik ez dut eta, beraz, etxe honen nolakotasun guztiak barnebiltzen saiatzen naiz: landare ugaridun etxea, intsentsua etengabe piztuta egoten dela dirudi, sukalde zabala sofa eta guzti, balkoi bat lainotzari begira, egin gabeko ohe bat eta itxita dagoen gelako atea.

- Apal bi harantzago egoten diren polizia-nobeletako pertsonaia ematen dut - pentsatu dut neure baitarako. - Liburu horiek udan ateratzen dira gehien. Asko eta asko hondar pilarekin itzultzen dira etxera. Zamarrak orri arteetan ekartzea estatusaren igogailua da guretzat, ze literaturak zerbaiti buruz hitz egin badu itsasoari buruz da.

Itxita dagoen ate hori izango al da hogeita bat egunerako nire gordelekua? Urrezko mahai bat eta lehortutako landareak itsatsita dituen orri-markatzaile bat zain izango ote ditut? Bihar eguzkia sartuko da orain itxita dagoen gelara, izango dituen beirate ederretatik. Argitasun handiarekin irakurtzen dena hobe iruditzen zaie irakurleei. Hartuko nuke eguzki izpi bat neure onena emateko. Baina ni poesia naiz, eta hartzaileak egiten nau idazleak beste.

Etxeari begiratu beharraren begiratu beharraz etxeakoari erreparatzea ahaztu dut. Sofan bota du bere pisua eta negar-zotinka ari da. Nik ez dakit malkoak non gordetzen diren begietara iristen diren arte, baina andre honek biltegi ikaragarri bat izan beharra dauka. Begizuloetan igartzen zaio negarrari emanda daramatzala bizpahiru egun. Baina negarra, antza, ez da gastatzen; negarrak norbera desgastatzen du, arimako kraka guztia garbituz. Joana dela dirudienean berragertu egiten da, nire orriotan dauden poema askotan maitale kapritxoso batekin gertatzen den antzera. Bizitzako momentu batzuetan kalte egiten duten harremanez beteta daude liburuak, "harreman toxikoez" egungo literatura gazteak esaten duen bezala.

Telefonoak jo du eta ahots dardartiak erantzun du:

- Etxe txiki hau handiegi geratzen ari zait. Gainera erortzen zait hutsunea.

Narratzaile orojakiledun eleberri bat banintz beste aldekoak dioena entzungo nuke. Baina ni poesia naiz, eta poesiak esan baino iradoki egiten du, eta lerroarteetan idazten jakin beharra dago.

- Ehorztetxeok esan didate biharko guztia beraiek utziko dutela prest –isilune bat. - Bai, hori da, Bk idatzita utzi zuen bezala, ez dugu ezer aldatuko, ez gara nor inoren azken borondatea zalantzan jatzeko.

Bk ez liguke barkatuko. Plazan elkartuko gara ordubete lehenago. Ea atertzen duen, nik ez dut nahi aterkipean drama biderkatzerik.

Sarrerako altzarira dator N. Intsentsua piztu du eta zutik egoteko egurtxoan sartu du. Badirudi etxearen atondoko altzari honek denoi eusteko balio duela. Hartu egin nau, eta bere altzoan jarri nau sofara erori denean, garbigailua gelditu eta arropak akituta erortzen diren bezala, gogo gabe.

- Nola esaten zaio agur lagun bati? - neuri galdezka ari dela dirudi, baina edonoren erantzunak asetuko luke oraintxe. - Ze neurritako hitzen multzoa behar da hogeita bost urtean etxe berean bizi izan den lagunari agur esateko? Hau ez du inork inon erakusten, eta nik neuk ere ez dut ikasi.

Negarra agertzen zaio berriro eta ni imajinatzen hasia naiz itxitako ate horren atzean zer dagoen. Gainezka eginda eta indar-hustuta dut eskuartean naukana. Neure onena eman behar dut, aholkuak eman, "norbere ezagutza" izeneko apaetik gero eta gehiagotan ateratzen dituzten liburu bat izan behar nuke orain. Baina ni poesia naiz, eta poesiak lagun egiten du.

- Ehorztetxeok eskelen adibideak bidali zizkidaten, bat aukera nezan. Bakarrean ere ez zen agertzen "haren laguna: bete hutsunea" formula. Jende askok ez du ulertuko zergatik ari naizen gauza guztiak neu antolatzen. "Ez al zeukan ba familiarik?" eta halako errazkeriak botako dituzte, hogeita bost urtean elkarrekin bizi izateari entzungor eginez.

Nk norbaiti hitz egiten dio eta ez nago ziur niri ote den. Literaturak dio pertsona baten ondotik joandako norbaiten ahotsa dela ahazten lehenengotarikoa, baina, antza, Nk ez dio elkarrizketari muzin egin nahi.

- Lankide gehienek ulertu dute egun bitan lanera ez joatea, baina aste osoko baja gehitxo iruditu zaie. Ze, klaro, beraiek badakite euren odoleko edo papereko ahaidea hiltzen denean zenbat egunetarako baimena duten. Are, ez du inork zalantzan jartzen galeraren ostean, apur baterako, mundutik apartatzea. Baina arauaren ertzetan kabitzen ez den ahaidetasun hau ez da ez legalki eta ez sozialki sostengatzen. Lehendik ere bagenekinana gordinki bizitzen ari gaitun geure haragitan, ezta hala B?

Bere izter gainetan utzi nau eta telefonoko mezuei erantzun die.

- Eskerrak non atsedean hartu badaukagun –mugikorra blokeatu eta alde batera bota du. - Eskerrak badauden epaitu gabe ulertzen gaituztenak, larrutan egiten dugun neska bi garen ala ez txutxumutxuka aritzen ez direnak, bestelako harreman molde batzuetan sinesten dutenak eta Sara Ahmeden liburuak erregalatzen dituztenak. Idazle horrek erakutsi zidan niri zuhaitz genealogikoak horizontalean egiten hasi behar dugula. Saiatzen gara zer edo zertan. Teorizatzen, zalantzan jartzen eta berrasmatzen.

Atzera jaso nau esku bien artean, objektu sakratu bat. Berrogeita zazpigarren orrialdean zabaldu nau eta ahoz gora irakurri dizkit neure orriotako hitzak:

Zintzotasunak

maitasuna betikotzen du.

Denbora

gogoa

espazioa.

Bat egitea eta irautea.

Elkartzea ez da

hain zaila.

Jendea etengabe gurutzatzen da

bata bestearen bizitzetan.

Zailena,

agian mirari bat,

momentuek bat egitea da,

eta gero

iraute horretan zoriona usaintzea.

Sofatik altxa eta itxita zegoen gelako atea ireki du. Txukun utzi zuen dena Bk, hiltzera zihoala baleki bezala. Albertxiko koloredun koltxa batek babesten du ohea, eta betiereko uda baten usaina ematen dio logelari, kanpoan euria zarra-zarra ari badu ere. Leihoak alderik alde ireki ditu Nk, joaten uzteko, eta

berriro irakurri du poema, berbek lagundu diezaioten zerumugarako bidaian. Gaur arte ez naute egundo liburutegitik atera, baina nik ez dakit sarri-sarri ateratzen dituzten horietakoren bat inoiz izan ote den halako sinbolismo ariketa ahaltsu baten lekuko. Lehen aldia da deklamatzeko nautena eta, nago, nire ondoan hautsa hartzen ari diren gainerako poema liburuek ez didatela sinetsiko.

Nren negarrari irribarre zintzo bat ateratzen zaio orain. Prest balego bezala da. Lagun onak izan dira, ondo konpondu dira elkarrekin, elkar maitatu eta errespetatu dute. Gatazkak izan dituzte eta ahalik eta ondoen ebazten ahalegindu dira. Min egin diote elkarri eta batak bestea poztu dute. Hartu eta eman aritu dira. Hogeita bost urtean elkarrekin bizitzea erabaki politiko bat izan da, sentimentala beste. Harremanaren gorabeherak, boterearen disposizio desberdinak, elkarbizitzaren ohiko kezkek. Egunerokotasunean elkar eraiki dira, Bren gaixotasunak uste baino azkarrago desagerrarazi duen arte. Elkarri agur esan diote.

Egin gabeko ohera narama Nk. Etzan eta besaperaino estali du gorputza. Eskuak almohadapean sartu ditu eta hauekin batera neu ere bai. Inoren ametsak kontrolatzeko ahalik banu oraintxe egingo nuke. Amapola zelai batekin amets egin dezala. Zurtoin luzedun lore gorriek opioa sortu baino lehen bazuten jada sinbolismo bakezale bat. Gero heroina sortu zuten, eta lore gorri eder batzuei hainbeste bizitza izorratu izana egozte justua ez delako ahaztu egin ziren heroinaren aurrekaria amapola zela. Izara leunak dauzka Nk. Kanpoan zaparrada ematu da eta sehaska kanta bat da orain. Amets egin dezala on egingo dion edozerekin. Loa sendagarria da.

Nik ez dakit zenbat egun eman ditudan burukoaren azpian. N funtzional aritu da egunen joanean, batzuetan negar asko egin du, eta besteetan ez hainbeste. Baina egunero apurren bat, hori bai. Hileta ospakizuna, jantziak, telefono deiak, paperak, tristura, bisitak, kafea egin beharra, medikuak alta ematea, lanera joateak on egingo diola sinestea, samina, federik ez dion jainkoren baten beharra. Bren gauzeekin zer egin pentsatzea eta B bera non eta nola kokatu asmatzea. Doluaren hasiera. Gauero eskuak almohadapera pasatu eta markatuta utzi didan orri-bitarteetan sartu du atzamarra. Gaur arte. Igandea da eta bero sapa jasanezina da. Hala ere, eguzkia etxean sartzeak umoreari eta osasunari egiten die on. Ohetik atera eta ordenagailuan bals bat jarrita duela irakurri dizkit idatzita ditudanak, berrogeita zazpigarrenetik aurrerakoak eta atzerakoak. Paparrean estutu nau eta esan ez badu ere badakit eskerrak eman dizkidala.

Iluntzerako apur bat freskatu du eta kalera atera da, bere berezkotasunari kontra egin ezinik: bizidunak, azken batean, bizitzen jarraitu behar du. Niri bizitza zati bat oparitu dit Nk. Nik bizitzaren zati bat

bizigarriago bihurtu diot Nri, bere gordintasunaren ederrenean. Ze ni poesia naiz, eta poesia beti dago hor. Liburuek ez omen dute inor hil. Are, makina bat bizitza salbatu dituzte.

Haize freskoa sumatu badaiteke ere, beroa itsasgarria da, eta bere esku izerdituek biltzen naute. Duela aste batzuk baino begitarte lasaiagoz gurutzatzen du plaza. Liburutegiaren aurreko maileguen kaxa beltzera bota nau, azalean musu bat eman eta gero. Iluntasunean amildu naiz eta nik ez dakit orain zer gertatuko den nirekin, noiz aterako nauten hemendik eta norbait gogoratuko ote den apalean ni bilatzeaz. Poetek ez omen dute zerurik espero. Poema hauek idaztera tematu zenak zeru zati bat dastatua du behintzat, bera jakitun izan ala ez.

Irakurleek egiten dute liburua zentzudun. Beraien denbora oparitzen digute eta guk euren denboratik kanpo dagoen nonbaitera eramaten ditugu. Igande arratsalde bat ez da hiltzeko egun onena izango igual. Gutxienean, bada hogeita bat eguneko mailegualdiak eman berri didan bizitzaren ederrari kaja beltz baten barrutik begiratzeko lain.